

Ordizian, 2017ko otsailaren 20an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Igor Eguren Izagirrek (Ordiziako EH Bildu) adierazi du ezin duela etorri

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

EGUNEKO GAIEN ZERRENDIA:

- 1.-2017ko otsailaren 6ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturak.
 - Aurrekontuen Aurreproiektuari ekarpenak
 - Garaje plazen emakida administratiboan esleipen eta eskualdaketarako, baldintza ekonomiko-administratiboak (Lukusain).
 - Sexu-erasoen protokoloa
- 4.- Galde-eskeak.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:40



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2017ko otsailaren 6ko batzordeko akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2017ko otsailaren 6ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 79 zenbakidun zerrendaren berri eman da.

Kopurua guztira: 11.967,64-€

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- Txostenak eta hainbat eskari.

- 6000 €tik beherako fakturak.

.- 5, 78 eta 80 zenbakidun zerrenden berri eman da.

Kopurua guztira: 32.103,46-€

Fakturei oniritzia eman zaie.

.....

- 2017ko Aurrekontuen Aurreproiektuari ekarpenak.

Sukia And.

2017ko Aurrekontuen Aurreproiektua aztertzen ari direla dio, oraindik lanean ari direla. Gainera, aurreko Tokiko Gobernu Batzordean esan zuen, aurreko urtean egindako ekarpen batzuk ez zirela kontuan izan.

.....

-
Erabakitzeke. Gaia Idazkariak eta Kontu-hartzaileak aztertuko dute, eta proposamen-txostena aurkeztu Tokiko Gobernu Batzordean.

.....

- Sexu-erasoen protokoloa

Berdintasun Teknikariak behin betiko zirriborroa aurkezteko zain; Gobernu Batzordeak oniritzia eman eta Osoko Bilkurak onartu dezan.

.....

4.- Galde-eskeak.

Dubreuil Jaunak:

- Esan du, gaur 18:30ean, Zuhaizti Elkartearen, Menpekotasun plana aurkeztuko dutela Osasun taldean. Gizarte Ongizate Aholku Batzordean ere aurkeztuko dute eta bihartik aurrera, alderdi politikoei bidaliko zaie ekarpenak egin ditzaten.
- Adierazi du, Beasaingo Udalak, ARARTEKOAK adingabekoei alkohol salmentaren kontrolari buruz bidalitako idatziari prentsan erantzun diola. Bere ustetan, Ordiziako Udalak ere, ARARTEKOARI erantzun behar lioke, bere gomendioak aintzat hartuko direla esanez eta Ordiziak menpekotasun sistema integral bezala ulertzen duena, Menpekotasun Plana bera dela, onartutako kontrol protokoloarekin batera, zeina, areagotu egin behar da eta ez data edo festa jakinetara mugatu.
- AZSE-ko babes ofizialeko etxebizitzek, azalera jabetza eskuratzeko aukerari buruz galdetu du (azalera eskubidea).
- "Pauso berriak" programari buruzko informazioa eman du, Administrazioak ezgaitasun intelektuala duten pertsonen enplegua eskaintzeko programari buruzkoa. Arduradunek programaren inguruko informazioa emango dute eta nola garatu, kasu honetan, Udalean.
- Lantzen ari den Gizarte Ongizateko Plan Estrategikoaren berri eman du.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta hori egiaztatzen dut.